

	Espediente zk.: / N.º expediente: 2022WDIR0013	Deialdi bidezko dirulaguntzak Subvenciones mediante convocatoria
	Sarrera-erregistroa / Registro de entrada	
HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA	Gaia: / Asunto: Andonaegin Hiri-Berroneratzea gauzatzeko JABE ERKIDEGOARENTZAT dirulaguntza	

EBAZPENA

RESOLUCIÓN

Aurrekariak

Antecedentes

1) 2022ko azaroaren 8an GAO n argitaratutako PASAIAKO UDALERRIKO ANDONAEGI AUZOAN BIZITEGI-ERAIKINAK BIRGAITZEKO JABEKIDEEEN ERKIDEGOEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK aintzat hartuta, 2023ko urtarrilaren 9 arteko epea eman zitzaien Andonaegi auzoko 30 bizilagun-erkidegoei programan atxikitzeko.

1) En base a la CONVOCATORIA Y BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A COMUNIDADES DE COPROPIETARIOS PARA LA REHABILITACIÓN DE EDIFICIOS RESIDENCIALES EN EL BARRIO ANDONAEGI DEL MUNICIPIO DE PASAIA, publicadas en el BOG el 8 de noviembre de 2022, se concedió un plazo hasta el 9 de enero de 2023 para la adhesión al programa a las 30 comunidades de vecinos del barrio Andonaegi.

2) Epea hori gaindituta 21 jabe-erkidegok egin zuten eskaera ofiziala, baina horietatik gutxi batzuek soilik aurkeztu zuten dokumentazio guztia zuzen.

2) Tras haber transcurrido dicho plazo, 21 comunidades de copropietarios han presentado su solicitud oficialmente, de las cuales sólo unas pocas han presentado correctamente toda la documentación.

Hori dela-eta, 2023ko urtarrilaren 12an errekerimendu ofiziala egin zitzaien akatsak zuzentzeko 10 eguneko epea emanaz.

Por ello, con fecha 12 de enero de 2023 se les requirió oficialmente para que subsanaran las deficiencias en el plazo de 10 días.

3) Zuzentzeko eskaerarekin batera jabe-erkidego batzuek 12.000€-rainoko aurrerakina eskatzeko aukera baliatu zuten oinarri espezifikoen 19. a) artikulua araberan.

3) Junto con la solicitud de subsanación, algunas comunidades han aprovechado para solicitar un anticipo de hasta 12.000€, en base al art. 19.a) de las bases específicas.

4) 2022ko azaroaren 8an oinarrietako 10. artikulua aldatzea onartzen da 2023ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran; aurretik eraginkortasun-energetikoko obrak burutu

4) En el Pleno del 31 de enero de 2023 se aprobó la modificación del artículo 10 de las bases publicadas el 8 de noviembre de 2022, que afecta a edificios que hayan realizado

dituzten eraikinei eragiten diena, hain zuzen ere. Bertan zegoen lau urteko epea ezabatzea erabakitzen da, hau dela-eta, 1. fasean inskribatu ez ziren interesdun berriei (1. artikuluan jasotakoak badira) beste aukera bat eman zaie.

Hala eta guztiz ere, 15 eguneko epealdia eman ondoren ez da interesdun berririk jaso.

5) 2023ko martxoaren 3an Andonaegi 12ko jabe-erkidegoak prozesuan jarraitzeari uko egiten diola aurkeztu zuen udal erregistroan.

Zuzenbideko oinarriak

2022ko azaroaren 8an GAO n argitaratutako oinarrien 15.1 artikulua arabera alkatetzaren dekretu bidez onartuko da programari atxiki zaizkion onuradunen zerrenda, eta ebazpen hori jakinarazi egingo da.

Atxikipenen ebazpena eman ondoren, jabe-kideen erkidegoek 3 aurrekontu eskatuko dituzte eraikina osorik birgaitzeko proiektu teknikoa idazteko, hilabeteko epean.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 3/1979 Lege Organikoaren 6. art.-a, Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Legearen 5.2.d, 6.1 eta 8. art.-ak eta Pasaiaiko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzaren 3, 15 eta 17 art.-ak aintzat hartuta, esanahi edo interpretazio zalantzarik sortuz gero gaztelaniazko eta euskarazko testuen artean, euskarazko testu orijinalak izango du lehentasuna.

obras de eficiencia energética con anterioridad. Se optó por suprimir el plazo de cuatro años, dando lugar a una nueva opción a nuevos interesados no inscritos en la fase 1 (en el caso de los incluidos en el artículo 1).

No obstante, tras haber concedido un plazo de 15 días, no se han presentado nuevos interesados.

5) El 3 de marzo de 2023, la Comunidad de copropietarios de Andonaegi 12 presenta en el registro municipal instancia renunciando a continuar con el proceso.

Fundamentos de derecho

De conformidad con el artículo 15.1 de las bases publicadas en el BOG de 8 de noviembre de 2022, se aprobará la relación de beneficiarios adheridos al programa mediante Decreto de Alcaldía y se notificará dicha resolución.

Una vez dictada la resolución de adscripciones, las comunidades de copropietarios solicitarán 3 presupuestos para la redacción del proyecto técnico de rehabilitación integral del edificio en el plazo de un mes.

En base al art. 6 la Ley Orgánica 3/1979 de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, los arts 5.2.d, 6.1 y 8 de la Ley 10/1982 Básica de Normalización del Uso del Euskara, y los arts 3, 15 y 17 de la Ordenanza Municipal de Normalización del Uso del Euskara de Pasaia, en caso de divergencia de significado o interpretación entre los textos en euskara y castellano, tendrá preferencia la versión original en euskara.

Horiek guztiak horrela, Toki-Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen Araudiaren azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 172. eta 175. artikuluen arabera.

Aurrez, Hirigintzako Administrazio Orokorreko Teknikariak ebazpen-proposamena eman du 2023/03/08an eta alkatetza honek,

A la vista de todo lo anterior, con fundamento en los artículo 172 y 175 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Previa propuesta de resolución del/la Técnico/a de Administración General de Urbanismo de fecha 08/03/2023 esta alcaldía,

EBAZTEN DU

LEHENENGOA.- ONARTZEA I. eranskineko zerrendan dauden jabe-erkidego horiei dagokien aurrerakinaren diru kopuru zehatza eta programan atxikitzea.

BIGARRENA.- Interesdunei AGINTZEA HILABETEKO EPEAN 3 aurrekontu eskatu beharko dituztela eraikina osorik birgaitzeko proiektu teknikoa idazteko; 2022ko azaroaren 8an GAO n argitaratutako oinarrien 15.1 artikuluaen arabera.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau JAKINARAZTEA Dirulaguntza eta Laguntza Publikoen Publizitaterako Sistema Nazionalari

LAUGARRENA.- Ebazpen honen BERRI EMATEA Herritarren Arreta Zerbitzuari Udal ediktu taulan eta web orrian argitaratu dezan, eta baita Kontu-hartzailletza sailari aurrerakinaren ordainketak egin ditzan.

BOSGARRENA.- ADIERAZTEA ebazpen honek bide administratiboa amaitzen duela.

RESUELVE

PRIMERO.- APROBAR la adhesión al Programa de las comunidades de propietarios relacionadas en el Anexo I, así como la cuantía concreta de los anticipos correspondientes.

SEGUNDO-- ORDENAR a las comunidades interesadas que en el PLAZO DE UN MES soliciten 3 presupuestos para la redacción del proyecto técnico de rehabilitación integral del edificio, de acuerdo con el artículo 15.1 de las bases publicadas en el BOG de 8 de noviembre de 2022.

TERCERO. - NOTIFICAR la presente Resolución al Sistema Nacional de Publicidad de Subvenciones y Ayudas Públicas.

CUARTO. - NOTIFICAR la presente resolución al Servicio de Atención Ciudadana, para su publicación en la tabla de edictos y en la web, así como al Departamento de Intervención, para que liquide los derechos municipales que correspondan.

QUINTO. - INFORMAR que la presente resolución agota la vía administrativa.

Pasaia, sinadura elektronikoaren datan.

LA ALCALDESA / ALKATEA

Izaskun Gómez Cermeño

I. ERANSKINA / ANEXO I
PASAIKO UDALERRIKO ANDONAEGI AUZOAN BIZITEGI-ERAIKINAK BIRGAITZEKO PROGRAMAN
ATXIKITUTAKO JABE-ERKIDEGOEN ZERRENDA, ETA DAGOKIEN AURRERAKINEN DIRU KOPURU
ZEHATZA

JABE-ERKIDEGOA	AURRERAKINA
BIDASOA 10	
IGELDO 2	12.000€
IGELDO 4	12.000€
IGELDO 6	
IGELDO 10	
OIARTZUN 2	12.000€
OIARTZUN 4	12.000€
OIARTZUN 10	12.000€
OIARTZUN 12	12.000€
OIARTZUN 14	
ANDONAEGI 2	12.000€
ANDONAEGI 4	
ANDONAEGI 8	
ANDONAEGI 10	
ANDONAEGI 14	
URGULL 2	12.000€
URGULL 4	
URGULL 6	
URGULL 8	
URGULL 10	

